

2006an jaiotakoen artean, lautik bat guraso ez ezkonduena da

Jaiotze-kopuruak goraka segitzen du, 20.043 izan dira, 2005ean baino %1,7 gehiago

2006.urtean, guraso ezkongabeak zituztela jaiotakoak 4.958 izan ziren; Eustatek landutako datuen arabera Bestela esanda, halakoak izan ziren jaiotzen %24,7, hots, 2005ean (%23,2) baino gehiago. Arabak eta Bizkaiak Euskal AEk baino ehuneko handiagoak izan zituzten, %25,7 eta %25,1; Gipuzkoak, berriz, balio erlatibo txikiagoak izan zituen (%23,9). **Azken hamazazpi urteetan guraso ezkon gabekoen haurren ehunekoa hirukoiztu egin da, 1990ean %7,7 baitzen.**

2006an 20.043 haur jaio ziren Euskal AEn, %1,7ko hazkundera 2005aren aldean, eta hazkunde hau 2004 eta 2005 artean izandakoa (%0,6) baino handiagoa izan zen. Araban izan zen gehikuntzarik handiena (%4,5), ondoren Gipuzkoan (%3,5) eta Bizkaian %-0,3ko jaitsiera izan zen.

Jaiotzak mila biztanleko 9,5 izan ziren, 1960ko hamarkadako milako 20 haietatik oso urruti. Kopururik handiena Gipuzkoan da (%10,4), ondoren Araban (%9,8) eta azkenik Bizkaian (%8,8).

1976tik aurrera, jaiotzek beheranzko joera nabarmena izan zuten; joera hori, dena dela, moteldu egin zen 80ko urteen amaieran, eta 1994an heldu zen mailarik apalena. 2006ko zifrek berretsi egin dute 1995ean abiatutako jaiotza tasen goraldia.

2006 urtean seme-alabaren bat izan zuten emakumeen %76,5ek hogeita hamar urte edo gehiago zituen. Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %45,4 eman baitu. Beste alde batetik, 2005. urtearekin alderatuta, handitu egin da 35 urtetik gorako amen taldea (%31,1), eta berriz ere 25-29 urte bitarteko taldea (%17,6) baino handiagoa da. Amen batez besteko adina 32,3 urtekoa da; eta lehen haurra eduki dutenena, berriz, 31,1 urtekoa, 2005ekoen antzeko zifrak.

Azken hamar urteotan, 30 urtetik beherako adin-talde guztiek pisua galdu dute, batez ere 25 urtetik 29rako adin-taldea, 7,6 ehuneko-puntu galdu baititu. Aitzitik, 10 puntu baino gehiago gehitu da 35 edo urte gehiagorekin ama izan direnen taldea.

Jaiotza ordenari begiratuz gero, 2006. urtean lehen seme-alabak %57,5 izan ziren, aurreko urtean gertatuaren antzera. Hirugarren eta ondorengo seme-alabak, ordea, %6,7 izan ziren, 2005ekoaren aldean ehuneko puntu erdia gehiago bakarrik.

Erditzeak 19.669 izan ziren: horietatik 19.205, bakunak dira; 454, bikoitzak; eta 10, hirukoitzak.

2006an jaioen artean, 100 emakumeko 106 gizonetzko izan zen sexuen arteko erlazioa. Batez beste, 3.297 gramoko pisua izan zuten mutikoek; eta neskatoek, 3.194koa.

1. taula: 2006an bizirik jaioak, amaren egoitzako lurralde historikoaren arabera

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	20.043	2.918	10.087	7.038
Gizonezkoak	10.336	1.524	5.181	3.631
Emakumezkoak	9.707	1.394	4.906	3.407
Jaiotza-ordena				
Lehenengoa	11.516	1.687	5.960	3.869
Bigarrena	7.178	1.045	3.473	2.660
Hirugarrena edo gehia	1.349	186	654	509
Amaren adinaren arabera				
< 25 urte	1.178	249	623	306
25 - 29 urte	3.530	512	1.719	1.299
30 - 34 urte	9.095	1.278	4.444	3.373
35 - 39 urte	5.332	745	2.821	1.766
>= 40 urte	908	134	480	294
Amaren egoera zibilaren arabera				
Ezkondua	15.085	2.167	7.560	5.358
Ezkongabea	4.958	751	2.527	1.680

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp